



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016KO MARTXOAREN 4 EKO BILKURARAKO DEIA

Organoa: Orendaingo Udaleko Plenoa

Tokia: Orendaingo udaleko Areto Nagusia

Deialdia: Lehenengoa

Hasiera data: 19:00etan

Amaiera data: 20:30tan

Bertaratuak:

Gorka Egia Arregi. Alkatea

Miguel Angel Arsuaga Azurmendi. Zinegotzia

Eli Garaialde Garmendia. Zinegotzia

Ibon Gonzalez Galarraga

Txaro Arrona Erdocia

Txaro Arrona Erdozia zinegotziak etorri ezina adierazi du .

Idazkaria : Nekane Lopetegi Etxeberria

GAI ZERRENDA

- 1.-2015-11-05eko akta onartzea hala balegokio.
- 2.-Guraso elkarteko ordezkariak 2015-07-09eko Bilkuran hartutako erabakiaren aurrean zuzenketak egiteko eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
- 3.-Alkatearen ebazpenak agertzea:
 - .-Tolosaldea Garatzen 500 euro ordaintzea IAE kontzeptuan.
 - .-Larraspi baserriko bigarren faseko lanen amaiera onartzea.
 - .-Orendaingo guraso elkarteari egindako bidaiaren gastuari laguntza ematea, 231,00 euro.
 - .-Haurreskola plazak osatzearen guraso bati kuota ordaintzea.
 - .-Euskal fondo elkarteari, 1887 euro ordaintzea.
 - .-A.A.U ren segregazio baimena onartzea.
 - .-A.A. U ren baimena teilatua berritzeko.
- 4.-2016eko udal aurrekontua eta plantilla organikoa onartzea.
- 5.-Imanol Zabalen dohikuntza onartu eta eskerrak ematea.
- 6.-Orendaingo udalaren administrazio elektronikoaren arauak jasotzen dituen ordenantzari haserako onarpena ematea.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

- 7.-Elkarteko baimena eskaera, gas ontzia lurrazpian jartzea onartzea.
- 8.-Etxez etxeko zerbitzua arautzen duen baldintza plegua onartu eta lizitazio deialdia egitea onartu.
- 9.-Uemaren proposamena, Orendaingo udalaren erabilera plana eta eta plan estrategikoa onartzea.
- 10.-Eudelen proposamena, Ministeritzak proposatu bezala, langileagoaren soldatetan %1eko igoera egitea onartzea eta beste proposamenak agertu eta dagokiona erabaki.
- 11.-Guifi fundazioarekin sinatzeko hitzarmena onartu eta horretarako alkatea baimendu.
- 12.-Norberak lekarkeenak.

1.-2015-11-05EKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak aginduta, 2015-11-05ko bilkurako akta mahairatu dira onarpena emateko. Bertaratuen aldetik inolako zuzenketa edo aldaketa proposamenik agertu ez denez dagoen bezala ontzat eman dira.

2.-GURASO ELKARTEKO ORDEZKARIAK 2015-07-09EKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURREAN ZUZENKETAK EGITEKO ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Orendaingo udala 2015eko uztailaren 9ko Osoko Bilkuran hartutakoa erabakiaren berri guraso elkarteari ematea erabaki zen eta, hara, guraso elkartearen ordezkariak, 2015eko abenduaren 23ean idatzi bat aurkeztu zuten.

Udalaren erabakia hau zen :

Orendaingo udalean antolatzen diren udaleku eta ludoteka zerbitzuetan parte hartzeko eskubidea izango dute:

.-Orendaingo udalerrian erroldatuak dauden haurrak.

.-Haur hezkuntzako lehen ikasturtea egiten ari direnak ludotekan eta amaitu dutenak udalekuetan, hau da, hiru urteko gelan daudenak, ludoteka eta udaleku zerbitzuan hasteko eskubidea izango dute.

.-Ludoteka eta Udaleku zerbitzuaren eskubidea, derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzen den urtean amaituko da.

.-Eta erabakiaren berri guraso elkarteari ematea, dagokiona zuzendu edo onartzeko.

Gurasoek bere aldetik egin duen ekarpenean, honako hau kontutan hartzea eskatzen dute:



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

.-Sarbidetako adina , 3 urteko gelan dauden ikasleak izatea.
.-Ludotekan parte hartuko duten haurrak, orain arte bezala zabala izango da, ez dute zertan herrian erroldatuak egon behar.

Udalak hartutako erabakia eta gurasoen luzatutako ekarpena ikus ostean, mahaikideek
ERABAKI DUTE:

Gurasoen ekarpena ontzat ematea eta 2015-2016 udaleku eta ludotekan aplikatzen hasia.

3.-ALKATEAREN EBAZPENAK AGERTZEA:

.-TOLOSALDEA GARATZENI 500 EURO ORDAINZEA IAE KONTZEPTUAN.
TOLOSALDEA GARATZENI IAE ZERGAREN %10EKO EKARPENA EMATEA ONARTZEA

Ikusirik, Tolosaldea garatzenen diru sarreretako iturri bat IAE zergaren %10eko udalen ekarpena dela.

Ikusirik, Orendaingo udalak IAE zergaren inguruan ezer ez du jasotzen. Halere, udal guztiek ekarpena egitea egokia ikusi zen. Horregatik, eskualdeko zenbait udalen artean egindako bilkuran erabaki zuten , 2015 urteari dagokionez , 500 eurotako ekarpena egitea.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

ERABAKI DU

Lehena.-Orendaingo udalak, 2015 urteari dagokionez, 500 euroko ekarpena egitea, Tolosaldea garatzen IAE zergaren %10eko kontzeptuan.

Bigarrena.-Hurrengo Osoko Bilkurari erabakiaren berri ematea. Orendainen, 2015eko abenduaren 22ean .



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarazn gainean geratu dira eta ontzat eman dute.

.-LARRASPI BASERRIKO BIGARREN FASEKO LANEN AMAIERA
ONARTZEA.
ALKATEAREN EBAZPENA 2016/01: OBRA AMAIERA ETA LEHEN OKUPAZIO BAIMENA

PROIEKTUA: LARRASPI BASERRIAN ESNE BEHI USTIATEGIAREN HAUNDIPENA

Kontutan hartuaz, 2013eko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran, Larraspi baserriko esne behi ustiategiaren obra zuzendariak luzatutako zertifikazio partziala onartu zela, non udalak onartutako proiektuaren barruan honako lan hauek burutu direla egiaztatu zelarik:

.-BEHI ESTABULAZIOAREN HAUNDIPENA . Estabulazio gunek berriak 614,08 metro karratu ditu.

.-BELAR SILO BERRIAK.- hiru belar silo berri 40/50/60 metrotako luzera eta 6 metroetako zabalerekin.

Erantsitako planoan, egindako lanak, lehen fasean eginak eta bigarren faseko lanak agertzen dira. Proiektu honetan, egiteko daudenak hauek dira:

- .-Pixa zuloaren forjatua
- .-ranpa
- .-Erditokia-biltegia
- .-Ume egiteko behien gunea eta ganbela aurea.

Kontutan hartuaz, 2016ko urtarrilaren 12ko datarekin, 2 fasearen zertifikazio partziala eta lanen amaiera jasotzen duen egiaztagiria jaso dela.

Bigarren fasearen egiaztagirian, honako lan hauek burutu direla adierazten da:

.- Pixa zuloaren forjatua. Guztira 1830,40 m³, hau da aurreikus baino 230,40 m³ gehiago

.-Behi estabulazioaren haundipena eta eritokia-biltegia .Kasu honetan proiektuan aurreikusitakoa baino 228,78 m² gehiago eraiki dira, foso guztia erabili delako eta biltegi bezalako erabilpena emango zaio handipenari.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

.-Belar zuloak. Aurreikusitakoa baino 1080 m3 gutxiago eraiki dira belar zuloetan

Kontutan hartuaz, egindako lanen aurrekontua aurkezten den likidazioa baino handiago zela ikusten da.

Ikusirik, Osasun txostena, 2012ko otsailaren 22koa aldekoa dela.

Ikusirik, jendaurreko denboraldian, aukakorik ez dela tarteratu.

Ikusirik, Udal Korporazioak aldeko txostena luzatu duela.

Ikusirik, Sailordetzaren legezko txostena aldekoa dela

Ikusirik, 3/1998 legearen, otsailaren 27koa, Euskal herriko Ingurumena babesteko Lege Orokorra, arabera jarduera SAILKATUA adierazi dela eta beharrezkoak gertatzen diren zuzenketak ezarri direla.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

ERABAKI DA

Lehena.- Larraspi baserrian, burutu dituzten lanen barruan, nekazaritza jarduera, orain arte bezala burutzeko baimena onartzea.

Bigarrena.- Larraspi baserriaren handipena proiektuaren barruan egindako eraikinek okupatzeko eta erabiltzeko baimena onartzea.

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarazn gainean geratu dira eta ontzat eman dute.

.-ORENDAINGO GURASO ELKARTEARI EGINDAKO BIDAIAREN GASTUARI LAGUNTZA EMATEA, 231,00 EURO.

GAIA: ORENDAINGO GURASO ELKARTEARI BIDAIRAKO LAGUNTZA ONARTZEA



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Ikusirik, 2015eko abenduaren 23ean, Orendaingo guraso elkarteak, bidai baten faktura, 689/15 zenbakia duena aurkeztu zuen. Fakturaren data, 2015eko abenduaren 22eakoa eta zenbateko osoa 462,00 euroakoa beza barne.

Ikusirik, fakturaren kontzeptuan, Orendainetik Mungiara autobus bidaia zerbitzua jasozten dela, eta hau guraso elkarteak herriko haurrentzako antolatua izan dela.

Kontutan hartuaz, guraso elkarteak antolatutako ekintza bat dela eta onuradunak herriko haurrak eta agztek izan direla.

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.-Bidai zerbitzuaren kostu osotik, %50eko dirulaguntza ematea guraso elkarteari, hau da 231,00 euro.

Bi.-Guraso elkarteak adierazitako kontu korrontean diru sarrera egitea.

Hiru.-Guraso elkarteari erabakiaren berri ematea.

Lau.-Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarazn gainean geratu dira eta ontzat eman dute.

.-HAURRESKOLA PLAZAK OSATZEARREN GURASO BATI KUOTA

ORDAINTZEA.

GAIA: LAIDA PLAZAOLA OYARZABAL ANDREARI HAURRESKOLAKO KUOTAK **ORDAINTZEA**

Ikusirik, Orendaingo haurreskolan haur kopurua mantentzeagatik, Laida Plazaolaren haurrak izena eman duela.

Ikusirik, izena eman arren, denboraldi batetan ez duela haurreskolara eramango, eta horrek, erabiltzen ez duen zerbitzu bat ordainztea dagokiola.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Kontutan hartuaz, Orendaingo haurreskolari matrikula egina izateak mesede sortzen diola, eta erabiltzen ez duen zerbitzuaren kostua 320 eurotako dela ikusiaz.

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.- Laida Plazaola Oyarzabal andreari, erabiltzen ez duen zerbitzuaren kostua udalak ordaintzea, hau da 320 euro hain zuzen ere.

Bi.- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Hiru.- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarazn gainean geratu dira eta ontzat eman dute.

-EUSKAL FONDO ELKARTEARI, 1887 EURO ORDAINTZEA. **EUSKAL FONDOAREN ELAKRTEARI 2015 URTEKO AURREKONTUKO %0,7** **ORDAINTZEA**

Kontutan hartuaz, 2015eko urtarrilaren 22eko osoko Bilkuran, elkartearen estatutuak onartu eta berauei atxekitzea onartu zela.

Kontutan hartuaz, 2015eko aurrekontua 269.685,74 € direla, eta Orendaingo udalak 2015urtean egin nahi duen ekarpena, aurrekontuaren %0,7 koa dela. Hau da, 1.887 euro direla.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

ERABAKI DA



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Lehena.- 2015 urteko aurrekontuarne gain, Euskal Fondoari 1887 eurotako diru ekarpena egitea.

Bigarrena.- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarazn gainean geratu dira eta ontzat eman dute.

.-A.A.U REN SEGREGAZIO BAIMENA ONARTZEA.

**Gaia: ANTONIO MARIA AMUNDARAIN URKOLA AUNARI ESKATUTAKO
SEGREGAZIO BAIMENA ONARTZEA**

Orendaingo alkateak, gaurko egunean honako ebazpena luzatu du:

**ANTONIO MARIA AMUNDARAIN URKOLA JAUNAK ESKATUTAKO SEGREGAZIO
BAIMENA ONARTZEA**

Kontutan hartuaz, 2016eko otsailaren 5ean, udal honetako Sarrera Erregistroan BOLUNTARIO BASOA deritzanaren segregazio baimena eskatu duela.

Kontutan hartuaz, segregatu nahi diren lursaileen azalera honakoa dela:

	Poligonoa	Partzela	Azalera
BOLUNTARIO BASOA	3	56	9.471 M2

Kontutan hartuaz, indarrean dagoen arautegiak, eta Arau Subsidiarioetan 1995/19 legea, 1995eko uztailaren 4ekoak 24. artikuluan xedatzen duena jasotzen dela, lurtsaileen zatiketa edo segregazioa ez dela balioztat emango, baldin eta hektarea baino txikiagoak diren unitateak sortzen badira.

Kontutan hartuaz segregatu nahi den partzelak eskriturtean 9.471 m2 dituela eta katastroan 7.017 m2, legeak ezarritako unitate minimoa baino txikiagoa dela. Horregatik, derrigortzea du, erosten duenak bere lursaileekin bat egitea eta elkartzea.

Segregazioa eskatzen duenaren kasuan, gutxieneko unitatea baino gehiagorekin geratzen dela, erosten duenak jabetzan dituen lursaileekin elkartu behar ditu.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

ERABAKI DA

Lehena.- Orendaingo katastroko 34 Poligonoko 56 partzela, 9.471 m² dituen segregatzeko baimena onartzea.

Bigarrena.- Aipatutako partzela hau segregatu ostean, erosten duenak bere lursaileekin agrupatzea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri hurrengo Osoko Bilkuran ematea.

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarazn gainean geratu dira eta ontzat eman dute.

.-A.A. U REN BAIMENA TEILATUA BERRITZEKO.

GAIA: ANTONIO AMUNDARAIN URKOLAREN BAIMEN ESKAERA ONARTZEA

Ikusirik, Zain baserriko Antonio Amundarain Urkola jaunak, bere baserriko ikulu eta garaje dagoen zatian, teilak ordezkatu nahi dituela.

Ikusirik aurketzu duen aurrekontuan egin behra den lana garbi ikusten dela eta lanen balioa 8.200 eurotakoa dela.

Kontutan hartuaz, obra txikia dela eta beste inolako agiririk aurkeztu behar ez duenez,

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.- Eskatutako obra burutzeko baimena onartzea.

Bi.-. Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Hiru.- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

Mahaikideek, alkatearen ebazpenaren jakinarean gainean geratu dira eta ontzat eman dute.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

4.-2016EKO UDAL AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.

Orendaingo udaleko alkateak, 2016 urteko aurrekontuaren proposamena eta udaleko plantilla organikoaren berri azaltzen du, onarpena eman ahal izateko.

GASTUEN EGOERA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Pertsonalaren lansariak	96.892,00
2	Gastu korront.eta zerb. Gastuak	63.610,00
3	Gastu Finantzierok	1.600,00
4	Transferentzi korronteak	68.040,00
6	Inbertsio errealak	52.010,26
7	Kapital transferentziak	2.000,00
9	Pasibo finantzierok	11.000,00
<u>Guztira</u>		<u>295.352,26</u>

SARREREN EGOERA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Zerga zuzenak	26.300,00
2	Zeharkako zergak	2.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak	12.900,00
4	Transferentzi korronteak	229.702,00
5	Ondare Sarrerak	5.100,00
7	Kapital Transferentziak	19.350,26
<u>Guztira</u>		<u>295.352,26</u>

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 127. artikulua xedaturikoa betez, Udal honetako plantilla organikoaren osaketa argitaratuko da oso osorik jarraian:

A) Karrerako funtzionarietzako gordetako lanpostuak

- Plazaren izena: Idazkari kontuhartzaitza

Plaza kopurua: 1



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Taldea 43 art. 6/89 leg.: B.
Egoera: Betea

B) Pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

- Plazaren izena: Oinegitura zerbitzuetako langilea

Plaza kopurua: 1.

Asimilazio taldea: E

Egoera: Betea

- Plazaren izena: Administrari laguntzailea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: D

Egoera: Betea (1)

- Plazaren izena: Gizarte laguntzailea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: B

Egoera: Behin behineko langilearekin betea

- Plazaren izena: Gizarte ongizate zerbitzuetako administrari laguntzailea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: D

Egoera: Hutsik dago

- Plazaren izena: Etxez etxeko langilea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: E

Egoera: Hutsik dago

(1) Lanpostu hauek laboralarekin beteta daude eta iraungitza postuak dira.

LANPOSTUEN ZERRENDAK 2016KO EKITALDIA

KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Deitura: Idazkari kontuhartzaitza

Lanpostu kopurua: 01

Dedikazioa: %35

Talde eskala: B



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Adskrizioa azpieskala: Idazkari kontuhartzailea

Klase: 3

Exijitutako betebeharrak:

Hizkuntz eskakizun: 04. Data : 92-06-30

Exijituriko titulazioa: Z.D, P.Z.D. edo E.Z.D.

Berarizko osagarria: 18

Betetzeko sistema Habilitatu nazionala

LAN PERTSONAL FINKOARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Deitura: Oinegitura zerbitzuetako langilea

Lanpostu mota: laboral finkoa

Dedikazioa: %50

Talde eskala: Administrazio orokorra

Exijitutako betebeharrak: hizkuntz eskakizuna 02. Data: 92-06-30

Titulazioa: Eskola egiaztagiria

Deitura: Gizarte laguntzailea

Lanpostu mota: behin behineko langilegoarekin betea

Dedikazioa: % 8,05

Talde eskala: Gizarte Ongizatea

Exijitutako betebeharrak: hizkuntz eskakizuna 03. Data 96-05-01

Titulazioa: Gizarte Laguntzaile diplomatura

Deitura: Administrari laguntzailea

Lanpostu mota: laboral finkoa

Dedikazia : %8,05

Talde eskala: gizarte ongizatea

Exijitutako betebeharrak: hizkuntz eskakizuna 03. Data : 96-05-01

Titulazioa: L.H. II. maila

Deitura: Administrari laguntzailea

Lanpostu mota: behin betikoa

Dedikazia: %50

Talde eskala: Administrazio orokorra

Exijitutako betebeharrak: hizkuntz eskakizuna 03. Data: 92-06-30

Titulazioa: L.H. II. Maila



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

BEHIN BEHINEKO LANGILEGOARI ERRESERBATUAK

Deitura: Etxez etxeko langilea
Lanpostu mota: behin behinekoa
Dedikazioa:
Talde eskala: gizarte ongizatea
Titulazioa: Eskola egiaztatgia

Udaleko idazkariak, aurrekontuaren gain, honako txostena luzatu du:

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2016 urteko aurrekontua

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

ORENDAIN

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Aurrekontuen egonkortasuna

Kredituen aldaketa espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 11.000,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2016rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

ERAGIKETA:

Sarrera kontsolidatua 1-7	295.352,26
Gastu kontsolidatua	284.352,26

Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015an likidatutako sarrera arrunten % 0,35,54 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori % 80,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua. (100.896,65 € zorra /283.841,56=35,54

ERAGIKETA:

2015-12-31ean zorra	111.896,65
2016 urtean aurreikusten den amortizazioa.....	11.000
2015 urteko aurrelikidazioaren eskubideak 1-5 biak barne ...	283.841,56



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Gastuaren araua

2015ko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 1,76 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	359.225,37
a2	SEC doiketak ^[1]	0,00
	2015ko interesak	1833,54
a3		
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	115.649,96
a5	menpeko entitateak	11.174,72
a=a1+a2-a3-a4-a5	2015ko gastu konputagarria	230.567,15
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	284.352,26
b2	SEC doiketak ^[2]	0,00
b3	2016ko interesak	1.600,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	44.850,26
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	
b6	menpeko entitateak	3.280,00
b=b1+b2-b3-b4-b5	2016ko gastu konputagarria	234.622
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	1,76

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,80 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, 2016 ekitaldirako aurrekontuak, bete egiten du gastu araua.

3- ONDORIOAK

2016ko aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten ditu, aurrekontuaren egonkortasuna, finantzaren iraukortasuna eta gastu araua.

^[1] Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

^[2] Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Orendainen, 2016ko otsailaren 12an
Idazkari kontu-hartzailea

5.-IMANOL ZABALAREN DOHIKUNTZA ONARTU ETA ESKERRAK EMATEA.

Imanol Zabalak, Orendaingo udaleko alkateak luzatutako eskaerari erantzun diola jakitera ematen da, honako hau adieraziz:

2015eko abenduaren 10ean alkateak luzatutako idazki eskaerari atsegin handiz erantzuten diot, eta atsegin handiz ere neik margotutako koadroak, bai elkarteasn daudenak eta udal blegoetan daudenak ere udalari dohain ematen dizkiot, egoki iritzitako lekuetan erakusteko. Eta gainera, neretzako poz handia da, era honetara, Orendain herriarekin dudan sentimendua agertuko delako. Aldi berean ere herriko ostatuan jarri nahi diren koadroak elkarren artean adostu eta jartzeko aukera ere izango dela adierazten du.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

Imanol Zabalarari eskerrak ematea, Orendaingo udalari egin din dohaintza honenagtik .

6.-OREDAINGO UDALAREN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ARAUAK JASOTZEN DITUEN ORDENANTZARI HASERAKO ONARPENA EMATEA.

Herri administrazio araubide juridikoaren araudia indarrean sarten dela ikusita, Orendaingo Udaleko administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen ordenantza mahairtau da onarpena eman ahal izateko.

Ordenantzaren hitzez hitza ondoren agertzen da:

**OREDAINGO UDALAREN ADMINISTRAZIO
ELEKTRONIKOAREN ZENBAIT ALDERDI**

**ORDENANZA REGULADORA DE DIVERSOS
ASPECTOS DE LA ADMINISTRACIÓN**



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

ZIOEN AZALPENA

Informazioaren teknologia berriak gero eta hedatuago daude bizitzako eremu guztietan. Hori horrela, beharrezkoa da administrazio elektronikoa hiritarrei hurbiltzea, kudeaketak errazago egin ditzaten, udal bulegoetara joan beharrik gabe.

XXI mendeko erronka teknologikoen mailan egon nahi duen administrazio batek komunikazio elektronikoen erabilera sustatu behar du; aurrerapen eta berrikuntza teknologikoak aplikatu behar ditu izapide eta prozeduretan, hiritarrei eskaintzen dien zerbitzuetan ahalik eraginkortasunik handiena eskaintzeko.

Udalaren ardura da konfiantza eta segurtasuna sortzea izapide elektronikoen erabileran, aurrerapen teknologikoak haien zerbitzura jarri. Azken batean, administrazioaren ardura da aurrez aurreko kudeaketaren eta kudeaketa elektronikoen arteko bidea murriztea, eta gure ardura da hiritarren eta administrazioaren artean dagoen hesia murriztea.

Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezartzen du 2009ko abenduaren 31tik aurrera toki-administrazioek hiritarrei aukera eman behar dietela legeak berak aitortutako eskubide hauek bitarteko elektronikoz erabiltzeko:

1. Administrazioarekin harremanetan jartzeko bidea aukeratzea.
2. Administrazioak dituen datuak eta dokumentuak ez ematea.
3. Berdintasuna zerbitzuak bitarteko elektronikoz eskuratzerakoan.
4. Interesdunak diren prozedurak zer izapidetan dauden ezagutzea.

ELECTRÓNICA EN EL AYTO. DE ORENDAIN.

EXPOSICION DE MOTIVOS

La creciente implantación de las nuevas tecnologías de la información en todos los ámbitos de la vida hace necesario el acercamiento de la administración electrónica al ciudadano/a con objeto de facilitarle la realización de las gestiones sin necesidad de personarse en las oficinas municipales.

Una administración que quiera estar a la altura de los retos tecnológicos del siglo XXI debe promover el uso de las comunicaciones electrónicas, incorporando en sus trámites y procedimientos aquellos avances y novedades electrónicas que permitan ofrecer la máxima eficacia en los servicios que presta a sus ciudadanos/as.

Es responsabilidad del Ayuntamiento generar confianza y seguridad en la utilización de las tramitaciones electrónicas, poniendo a su servicio los avances tecnológicos posibles. En definitiva, es responsabilidad de la administración acortar el camino entre la gestión presencial y la electrónica y es nuestra responsabilidad emprender acciones encaminadas a reducir la barrera que distancia al ciudadano/a de la administración.

La Ley 11/2007 de 22 de junio sobre acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos establece que a 31 de diciembre de 2009 las administraciones locales deberán permitir que los ciudadanos/as ejerzan los siguientes derechos que le son reconocidos por la propia ley en relación con la utilización de los medios electrónicos:

- a. Elegir el canal a través del cual relacionarse con la administración.
- b. No aportar los datos y documentos que obren en poder de la administración.
- c. Igualdad en el acceso electrónico a los servicios.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

5. Dokumentuen kopia elektronikoak lortzea.
 6. Espedientea osatzen duten dokumentuak formatu elektronikoan gordetzea.
 7. Identifikazio elektronikorako behar diren bitartekoak lortzea, eta pertsona fisikoek nortasun-agiriaren sinadura elektronikoa erabili ahal izatea, edozein administrazioekin edozer izapide elektroniko egiteko.
 8. Sinadura elektronikoko beste sistema batzuk erabiltzea.
 9. Segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.
 10. Bitarteko elektronikoen bidez emandako zerbitzu publikoen kalitatea.
 11. Administrazioekin harremanetan jartzeko aplikazioak edo sistemak aukeratzea, betiere estandar irekiak erabiltzen diren kasuetan.
- d. Conocer el estado de tramitación de los procedimientos en los que sean interesados.
 - e. Obtener copias electrónicas de los documentos.
 - f. Conservar en formato electrónico los documentos que forman parte del expediente.
 - g. Obtener los medios de identificación electrónica necesarios, pudiendo las personas físicas utilizar la firma electrónica del Documento Nacional de Identidad para cualquier trámite electrónico con cualquier administración.
 - h. Utilizar otros sistemas de firma electrónica.
 - i. Garantía de seguridad y confidencialidad.
 - j. Calidad de los servicios públicos prestados por medios electrónicos.
 - k. Elegir las aplicaciones o sistemas para relacionarse con las administraciones siempre que utilicen estándares abiertos.

1. Artikulua. Helburua.

Ordenantza honen helburua da Orendaingo Udaleko administrazio elektronikoren zenbait alderdi arautzea, zehazki, honako hauek:

- a. Orendaingo Udalaren egoitza elektronikoa sortzea, eta haren funtzionamendua arautzea.
- b. Identifikazio elektronikoko sistemak definitzea.
- c. Orendaingo Udalaren erregistro elektronikoa sortzea, eta haren funtzionamendua arautzea.
- d. Jakinarazpen elektronikoen funtzionamendua arautzea.

Artículo 1. Objeto.

La presente Ordenanza tiene por objeto regular diversos aspectos de la administración electrónica en el Ayuntamiento de Orendain, más en concreto:

- a. Crear y regular el funcionamiento de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Baliarrain.
- b. Definir los sistemas de identificación electrónica.
- c. Crear y regular el funcionamiento del Registro Electrónico del Ayuntamiento de Orendain.
- d. Regular el funcionamiento de las Notificaciones Electrónicas.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

- e. Dokumentu elektronikoen zenbait alderdi definitzea.
- f. Espediente elektronikoen zenbait alderdi definitzea.

e. Definir diversos aspectos de los Documentos Electrónicos.

f. Definir diversos aspectos de los Expedientes Electrónicos.

2. Artikulua. Lege-esparrua.

- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.
- 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzkoa.
- 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duena.
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datuen babesari buruzkoa.

Artículo 2. Marco Legal.

- Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
- Ley 11/2007 de 22 de junio de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.
- Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades locales.
- Ley orgánica 15/1999, de 13 diciembre de protección de datos de carácter personal.

EGOITZA ELEKTRONIKOA

3. Artikulua. Egoitza elektronikoa.

1. Hiritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/07 Legearen 10. artikuluan jasotakoari jarraikiz, <http://www.orendain.eus> web-gunea izango da Orendaingo Udalaren Egoitza Elektronikoa.
2. Orendaingo Udalaren egoitza elektronikoen zati izango dira, halaber, Udalaren jabetzako datuak argitaratzen eta kudeatzen dituzten web-guneak, betiere 2003ko martxoaren 19an Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearekin (IZFE S.A.) sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren edo horren ondorengoen, ordezkoren edo osagarrien babesean.
3. Bitarteko elektronikoen bidez Udala edo

SEDE ELECTRÓNICA

Artículo 3. Sede Electrónica.

1. A los efectos de lo previsto en el art. 10 de la Ley 11/07 de 22 de junio de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, se constituye la página web www.orendain.eus como Sede Electrónica del Ayuntamiento de Orendain.
2. Asimismo se incluirán en el ámbito de la sede electrónica del Ayuntamiento de Orendain los sitios web en los que se publiquen y gestionen datos propiedad del Ayuntamiento al amparo del Convenio de Colaboración suscrito con la Sociedad Foral de Servicios Informáticos (IZFE S.A.) con fecha 13 de marzo de 2003, o los que lo sucedan, sustituyan o complementen.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

herriarrak baimendu behar direnean jarduera, prozedura eta zerbitzuetarako, hori egoitza elektronikoaren bidez egingo da.

4. Egoitza elektronikoa kudeatzeko arduraduna Orendaingo Udaleko Idazkaritza zerbitzua da.

4. Artikulua. Ediktuen eta iragarkien udal taula elektronikoa.

1. Legezko edo erregelamenduzko xedapenengatik ediktuen udal taulan argitaratu beharreko ekintzak eta jakinarazpenak argitaratzerakoan, ediktuen taula elektronikoa argitaratuta osatu ahal izango dira.
2. Ediktuen taula elektronikoa Orendaingo Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko da eta interneterako konexioa duen edozein terminaletik kontsultatu ahal izango da.
3. Ediktuen taula elektronikora sartzeko ez da nortasuna egiaztatzeko inolako mekanismo berezirik behar izango.
4. Ediktuen taula elektronikoa edukia egiazkoa, osoa eta erabilgarria dela bermatzen duten sistemak eta mekanismoak edukiko ditu, herri administrazioetako araubide juridikoa eta administrazio prozedura erkidea araupetzen duten legeek aurreikusitako baldintzei jarraiki. Bereziki, dagozkion epeak zenbatzeko ondorioetarako, ediktuak argitaratu diren data eta ordua adieraztea bermatzen duten mekanismoa ezarriko da.
5. Ediktuen taula elektronikoa erabilgarri egongo da urteko egun guztietan, hogeita laur orduz, egoitza elektronikoaren bidez. Arrazoi teknikoak direla-eta, aurreikusten bada ediktuen taula elektronikoa ezingo dela erabilgarri egon, erabiltzaileei ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaie, eta taula

3. A través de la sede electrónica se realizarán las actuaciones, procedimientos y servicios que requieran la autenticación por medios electrónicos del Ayuntamiento o de los/as ciudadanos/as.

4. La unidad administrativa responsable de la gestión de la sede electrónica es el departamento de Comunicación y Participación del Ayuntamiento de Orendain.

Artículo 4. Tablón municipal electrónico de edictos y anuncios.

1. La publicación de actos y comunicaciones que, por disposición legal o reglamentaria, deban publicarse en el tablón de edictos municipal, podrá ser complementada por su publicación en el tablón de edictos electrónico.
2. El tablón de edictos electrónico se publicará en la sede electrónica del Ayuntamiento de Orendain y podrá consultarse desde cualquier terminal con conexión a Internet.
3. El acceso al tablón de edictos electrónico no requerirá ningún mecanismo especial de acreditación de la identidad.
4. El tablón de edictos electrónico dispondrá de los sistemas y mecanismos que garanticen la autenticidad, la integridad y la disponibilidad del contenido, en los términos previstos en la legislación reguladora del régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común. En especial, a los efectos del cómputo de los plazos que corresponda, se establecerá el mecanismo que garantice la constatación de la fecha y la hora de la publicación de los edictos.
5. El tablón de edictos electrónico estará disponible todos los días del año y durante las veinticuatro horas del día, a través de la sede electrónica. Cuando por razones técnicas se prevea que el tablón de edictos electrónico puede no estar operativo, deberá anunciarse



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

kontsultatzeko erabilgarri dauden baliabideak adieraziko zaizkie.

a los usuarios y usuarias con la máxima antelación que sea posible, indicando cuáles son los medios alternativos de consulta disponibles.

IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA

5. Artikulua. Identifikazio elektronikoa.

1. Orendaingo Udalarekin dituzten harremanetan, pertsonak eta entitateek Baliarraingo Udalak baliozkotzat hartutako sinadura elektronikoko sistemak erabili ahal izango dituzte sistema hori onartzen duten prozeduretan eta jardueretan. Egoitza elektronikoa, Baliarraingo Udalak baliozkotzat hartzen dituen sinadura elektronikoko sistemen zerrenda eguneratua argitaratuko da.
2. Aldi baterako, sinadura elektronikoko sistemarik ez duten pertsonak eta entitateak, gako eragile eta pasahitzaren bidezko ordezkotza sistema bat eman ahal izango zaie Udalarekin harremanak izateko eskubidea gauzatu ahal izateko. Egoitza elektronikoa, gako eragilea eta pasahitza eskatzeko jarraibideak eta formularioa argitaratuko dira.
3. Sinadura elektronikoa edo gako eragilea erabili arren, dokumentu edo komunikazio elektronikoa sartu egin behar dira prozedura bakoitzerako behar diren identifikazio datuak.
